

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

3488

EBAZPENA, 2020ko abuztuaren 6koa, Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari zuzendutako idazkiak udal erregistroetan aurkezteko 2020ko abuztuan azkendu diren lankidetzaz hitzarmenen zerrenda.

Eusko Jaurlaritzak lankidetzaz hitzarmenak sinatu zituen ebazpen honen eranskinean adierazitako udalekin Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari zuzendutako idazkiak udal erregistroetan aurkezteko, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4.b) artikulua babesean (modu iragankorrean indarrean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen laugarren xedapen iragankorrean xedatutakoaren arabera).

Hitzarmen horien bidez, herritarrek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari eta haren mendeko edo hari atxikitako berezko nortasun juridikoko zuzenbide publikoko erakundeei zuzentzen dizkieten eskaera, idazki eta jakinarazpenak udal erregistroetan aurkeztu ahal izango dituzte eraginkortasun osoz.

Hitzarmenaren seigarren klausulak hitzarmenen indarraldia lau urterako ezartzen du, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera, bai eta Administrazio sinatzailearen batek, espresuki, kontrakorik adierazten ez badu, hitzarmena, besterik gabe, beste lau urterako luzatuko dela.

Hitzarmenetan aurreikusitako epea amaitu denez, azkendu egin dira Eusko Jaurlaritzaren eta eranskinean aipatutako udalen arteko lankidetzaz hitzarmenak.

Era berean, aipatutako klausulak aurreikusten du hitzarmen horien azkentzea argitaratu behar dela: Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, lurralde historiko bakoitzeko aldizkari ofizialean, eta udal bakoitzaren iragarki-taulan.

Horregatik guztiagatik, eta kontuan hartuta, batetik, hitzarmenen seigarren klausula, eta, bestetik, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 11ko 71/2017 Dekretuaren 10. artikulua, honako hau

EBAZTEN DUT

Artikulu bakarra.– Argitaratzea ebazpen honen eranskinean adierazitako udalen hitzarmenaren indarraldia 2020ko abuztuan amaitu dela, Autonomia Erkidegoko Administrazioari zuzendutako idazkiak udal erregistroetan aurkezteko lankidetzaz hitzarmenen seigarren klausularekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abuztuaren 6a.

Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako zuzendaria,
MIREN ITZIAR LICEAGA ROMERO.

2020ko irailaren 3a, osteguna

ERANSKINA

Udalerrria	Hitzarmenaren epemuga
Ortuella	2020-08-16